

eta eraginak arakatzea, horien jatorria Jainkoagandikoa ala izpiritu gaiztoagandikoa den jakiteko, horien balioa ezagutzeko, eta ezagutza horren arabera norberaren edo besteren bizi izpirituala bideratzeko eta gidatzeko.

Ik. Arimako zuzendaria.

Izpirituko elkortasuna

Sin.: Izpirituzko lehorraldia

Horrela esaten da kristau-izpiritubidean, *fededunak otoitza edo bestelako erlijiozko lanak egiteko zailtasun berezia edo ezintasuna nabari dituenean.

Ik. Izpiritubidea; Debozioa.

Izpirituzko lehorraldia

Ik. Izpirituzko elkortasuna.

Izu-argiak

Ik. Argiak.

Izugarria, zer

R. Otto-ren Das Heilige (Zer santua) liburu klasikoak erlijiozko esperientzia psikologikoa adierazteko darabilen esakunea.

Horren arabera, *misterioaren edo "erabat bestelako"tzat hartzen duen Izakiaren aurrean, izu eta ikara bizitzazkoak eta funts-funtsezkoak nabari ditu gizakiak. Jainkoaren handitasunaren aurrean norberaren urruntasunaren, *bekatuaren eta ezerezaren sentipena biltzen du izugarria hitzak.

Ik. Jainkoaren beldurra; Misterio liluragarria.

J

Jaia

Gertakariren baten ospakuntza adierazten du, batetik, jaiak edo festak; bestetik, ospakizunak egiten direneko eguna du jaia (jaieguna) astegun edo lanegunaren kontra-koa.

Gizarteak berezko alderdia du jaiarena. Etekinaren, eraginkortasunaren eta produktibitatearen grinak hartuta daukaten gure mundua, jaiaren garrantzi antropologiko oinarritzakoa berreskuratzen eta balioztatzen hasia da.

Elkarte eta gizarteen hasiera-hasierak sakonenean dago erroturik jaietzakoa. Beharrezkoa da jaieguna, aste barruko lanaldi eta eritmoaren neketik eta larritasunetik ateratzeko atsedenaldi eta lasaialdi gisa. Jolasa beharrezkoa da egoera lasaigarria aldatzen gaituena.

Baina jaia bada, aldi berean, harremanak egiteko eta elkar topatzeko eta elkarrekin askatasunez eta geure kasa komunikatzeko, hortik datorren alaitasuna bizitzeko.

Atsedenaldi adierazgarria da, bada, jaia, bizitzaren balore oinarritzakoa baieztatzeko. *Biziari "baiezkoa ematea" da (H. Cox); baieztapen bitalista horrek, berriz, bidea ematen du eguneroko eritmo aspergarria eteteko eta gainditzeko. Horregatik, edozein jai pozgarria da, gure izatea, norbanakoaren eta herriaren izatea alegia, gogorarazten

eta benetan agertzen eta zabaltzen bait du jaiak.

Munduko Herri guztien legez, Euskal Herriak ere berezko elementua izan du eta du jaia, hainbat era tradizional nahiz berritan agertzen dena.

Bizi herritarraren adierazpidea da jaia; horregatik bilakaera handia ukan du gizarte bakoitzean. Hasiera hartan *izadiaren, erlijioaren eta herriaren eritmoak batu egiten zituen jaiak. Gaur, berriz, neurri batez hautsi egin dute batasun hori gizartean dauden bereizketak eta bereizketak: jai erlijiozko eta zibil ezberdinak daude, eta *sekularpenerako joera nagusitzen ari da.

Areago, bateraezinezko kontraktotasuna ikusten dute batzuk erlijiozkoaren eta jaietzakoaren artean. F. Nietzsche da kristau-erlijiozkoaren eta jaietzakoaren arteko etendura horren salakuntzaren lekukorik muturrekoena: "Motza izan beharra dago, kristauen eta kristau-baloreen presentzia jaiaren benetako izpiritu osoa galerazten duen ezarpen gisa ez nabaritzeko... Paganoetan paganoena da jaia".

Egia da, bai, kristau-jokabide eta ospakuntza batzuek horrelako salaketarako oina ematen dutela. Baina, Nietzsche-ren beraren hitz berberak erabiliz, zera esan behar da: benetako *kristautasuna jairik jaiena dela. Jakina da familiako eta herriko jaietan

Jai egiteko eguna

esku-hartzen zuela Nazaretoko Jesusek, eta jendea jolasean eta atseginezko giroan zebilen lekuan egotea atsegin zitzaiola (Jn 2,1-12; 2,23; 5,1; 7; 10,22). Ohartzekoa da benetan Jesusen egite garrantzizkoenak herri-jaietara lotuta daudela, San Joanen aipaturiko testuak kontutan baditugu.

S. Atanasioaren esaldia da: "Etengabeko jaialdi bihurtzen du bizitza Kristo gurutztillatuak". Kristau-liturgia osoa, eta bereziki *sakramentuak dira alaitasunaren eta jaiaren lekua eta iturria, *Bazkoaren gertakari alai eta jalezkoaren ospakuntza direnez. Ik. Liturgia.

Jesusen nekaldi-heriotzetatik banandu ezinezko moduan loturik dago, bestalde, kristau-bizieraren eta ospakuntzen jalezko izpiritua. Jaiak ez dauka, beraz, kristau-ikuspegitik begiratuta, hainbesteri alaitasuna eta libertatea eragozten dizkien oinaze, arazo eta nekeetatik ihes egitea izaterik inoiz. Alderantziz, "eskatologiako jai unibertsal eta betirakoan hemengo zapalkuntza guztiak gainditzeko itxaropen, eskakizun eta mezu gisa ospatzera behartzen gaitu kristauok edozein jalezko izpirituk (Ap 21): horren aiderazpen eta horretarako eskakizun askatzailea da kristau-jaiak.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Jai egiteko eguna

Eliza Katolikoan fededun guztiak meza entzutera eta jopu- edo mirabe-lanik ez egitera behartuak daudenekoa da. Igande guztiez gain, jaiegun batzu daude, Eliza osoan gordetzen direnak, eta beste batzu, tokiko Elizak bakoitzarenak.

Ik. Jaiak; Domeka; Igandea.

Jaieguna

Ik. Jaiak.

Jaiera

Ik. Debozioa.

Jaiera(k)

Sin.: Debozio(ak)

Kristau-hizkerari dagokionez, santuren bati, Ama Birjinari (berorren *deitura jakinen batetan), kristau-misterio jakinen bati edota erlijiozko gauzaren bati buruzko atxekimendua, ihardukizun eta ariketa erlijiozko eta deboziozotan adierazten eta agertzen dena.

Eliza Katolikoak onartu eta sarritan bultzatu egiten ditu horrelako jaiera konkretuak: Jesusen bihotzarena, Ama Birjinare-

na, Jesus sakramentutuarena, Jesusen nekaldiarena, gurutzearena, santuenak, etab.

Singularrez, *erlijiozikunetan edo *otoitzean fededunak agertzen duen eraspen berozko jarrera esan nahi du. Ik. Debozioa, 1.

Jaiarazko bazkuna

Sin.: Pietatezko bazkuna

Erlijioak izan gabe, helburu elizkoietarako eta jaiarazkoetarako elkartzen diren fededunen erakundea, eliz *hierarkiak dekretuz onetsia.

Ik. Elkartea; Kofradia.

Jaiarazko meza

Sin.: Debozizko meza

Liturgi egutegitik kanpo, nor bere jaiarari erantzuteko edo gertakari bereziren bat ospatzeko aukeratu eta eman daitekeena. Meza-liburuak berak bilduak eta eratuak ditu horretarako hainbat meza-formula.

Ik. Meza; Debozioa, 2.

Jainismoa

Jina hitz sanskritotik dator: "garailea" adierazten du, hau da, norberaren grinak gainditu dituen.

India mendebaldeko erlijioa da, *budismoarekin bateratsu, K.a. VI. mendean eratu. Mahavira jakintsua hartzen dute erlijio-sistemaren eratzaitzat, nahiz eta horren elementuak eta joerak lehenagotik herriaren tradizioan aurkitu.

Brahmanismo politeistaren aurka burrukatuz, beste muturrera jo zuen jainismoak; horregatik jainkogabetzat ere jo daiteke.

Jainismoaren ezaugarri eta bereizgarriak nagusiekin *ahimza edo bortxaezaren irakatsia da. *Bizia, edozein animaliatan azaltzen delarik ere, sakratua omen da, eta horrienganako begirune erabatekoa eskatzen du fededunaren aldetik. Horregatik, edozein hil-keta eta bortxa fisikoren kontrakoak izateaz gain, barazkijaleak dira jainistak: barazkiak eta fruitu batzu bakarrik jan ditza-kete. Ahimza da jainismoaren lehen agindua.

Gandhi erlijio honetan hezi zen: ahimza edo bortxaeza erabili zuen taktika politiko gisa.

Etika latza predikatzen du jainismoak, bai monako edo *sadhū-entzat bai *laiko --mundutar-- edo xravaka-entzat: agindu-sail batek denentzat balio du, baina monakoek badituzte berentzako agindu bereziak ere.

Aszetika gogorra eta biziera soila eskatzen du jainismoak. Aszesi-ariketen bidez,